

## Herria eta unibertsoa... Altzan

**a**pirilaren 25ean, *Altzako Casares Kultur Etxean*, *Joxe Austin Arrieta*, *Joan Mari Irigoien*, eta *Inazio Mujika Iraola* idazle donostiarrak «Hemengo, horkoa, hangoa... herria eta unibertsoa» gaiari buruz hitz egiteko bilduko dira mahainguruan. Moderatzaile lanetan, aldiz, *Arantxa Iturbe* idazle tolosarra arituko da. Gaiak, dudarik gabe, luze jarduteko ematen du, eta ziur gauza interesgarriak adituko dituela bertaratzen denak. Mahaingurua 19.30etan hasiko da.



**APIRILAREN  
20ean**

Xabier  
Lizardiren  
omenez

**X**abier Lete, Antton Valverde, Joxean Artze eta Imanol kantariek kontzertua emango dute hilaren 20ean *Victoria Eugenia Antzokian*. *Xabier Lizardiren* jaiotzaren mendeurrena ospatzen den honetan, kantari hauek omenaldi berezia egin nahi izan diote eta *Lizardiren* restuetan oinarritutako kontzertua prestatu dute. Hilaren 20ean, larunbata, *Victoria Eugenia Antzokian* 22.00etan.

## Garcia Lorca taula gainean

**n**uria *Espert* aktore eta antzerki zuzendari ezaguna berriro Donostian izango dugu hilaren 27 eta 28an. Izan ere, *Carmen Cortes Ballet*-aren zuzendari lanetan datorkigu orain, hain zuzen ere talde honek anizteztuko duen *Federico Garcia Lorca*ren «*Yerma*» obra zuzentzera. «*Yerma*», Dantza, antzerkia eta musika uztartzen dituen obra da, *Garcia Lorca* idazle andaluziarraren nor-tasuna dariona. *Victoria Eugenia antzokian*, 20.00etan.



ra *motoz*» diapositibak *Angel Ortiz*-en eskutik. *Intxaurrondoko Ipar Haizea Elkartean*, 19.30etan.

### Zinema

● *Louis Malle*-ren «*Ascensor para el codalso*» filmea. *Antzoki Zahar*ean 20.15etan.

## OSTEGUNA 25

### Antzerkia

● *Pavana Espectacles* taldearen «*Pánico Contenido*» antzezlan. *Antzoki*

*Zahar*ean, 20.00etan.

### Kontzertua

● *Exit* taldea. *Parte Zahar*reko «*Masusta*» tabernan, 20.30etan.

### Ikuskizuna

● *Ibiltariaren II. as- tea*: «*Java*». Diapositibak eta hitzaldia, *Fernando Retolazaren* eskutik. *Intxaurrondoko Ipar Haizea Elkartean*, 19.30etan.

● «*Centinela de piedra Aconcagua*» bideoa: *Casimiro Bengoetxearen* azalpenekin. *Okendo Kul-*

*tur Etxean*, arratsaldeko 19.30etan.

### Hitzaldia

● «*El mundo de la deficiencia mental*» hitzaldia *Atzegiko Cani Peñalbaren* eskutik. *Altzako Casares Kultur Etxean*, 15.30etan.

● «*Hemengo, horkoa, hangoa... herria eta unibertsoa*» izenburupean mahai-ingurua: *Joxe Austin Arrieta*, *Joan Mari Irigoien* eta *Inazio Mujika Iraola*. *Casares Kultur Etxean* 19.00etan.

## OSTIRALA 26

### Antzerkia

● *Pavana Espectacles* antzerki taldearen «*Pánico Contenido*» antzezlan. *Antzoki Zahar*ean, 20.00etan.

### Kontzertua

● *Santa Zezilia abesbatzaren* kontzertua. *Lugaritzen*, 20.00etan.

● «*Rageous Grato- ons*» taldea. *Amara Zahar*reko *La Gatera* tabernan, 20.30etan.